

eman ta zabal zazu



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

VITORIA-GASTEIZKO  
INGENIARITZA  
ESKOLA  
ESCUELA  
DE INGENIERÍA  
DE VITORIA-GASTEIZ

# VITORIA-GASTEIZKO INGENIARITZA ESKOLAKO BULETINA

INFORMAZIO BULETINA 116. zb.  
2024ko urtarrila

[www.ehu.eus/vitoria-gasteizko-ingeniaritza-eskola](http://www.ehu.eus/vitoria-gasteizko-ingeniaritza-eskola)



# EDUKIAK

## **Kudeaketa akademikoa** ..... 3

1. 2023-2023 ikasturteko graduazioa
2. Lankideen aintzatespena (2023. urtea)

## **Titulazioak sustatzea** ..... 6

1. Zientzia Astea 2023

## **Jarduerak** ..... 6

1. STEAM Kultura elkarlaneko artearen bidez
2. Enpresen/enpresetara bisitak
3. Bizi-kalitateari, ingurumenari eta birziklatze-ohiturei buruzko jardunaldiak
4. Euskararen Eguna

## **Beste batzuk**..... 8

1. Ranking of the World Scientists
2. "López de Peñalver" Saria
3. Arabako Industri Ingeniarien Elkargo Ofizialaren saria
4. Eusko Legebiltzarreko Hezkuntza Batzordearen bisita



# Kudeaketa akademikoa

## 1. 2023-2023 ikasturteko graduazioa

2022-2023 ikasturtean ikasketak amaitu zituzten ikasleen graduazio ekitaldia 2023ko urriaren 26an izan zen, 17:30ean, ikastegiko Ekitaldi Aretoan, eta honako agintari hauek bertaratu ziren:

- Eva Ferreira andrea, UPV/EHUko errektorea.
- Saray Zárate andrea, Ekonomiaren Garapen eta Berrikuntzako foru diputatua.
- Zuriñe Elordi andrea, Vitoria-Gasteizko Udaleko Kultura eta Hezkuntza zuzendaria.
- Miren Artaraz andrea, Eusko Jaurlaritzako Unibertsitate Politika eta Koordinazioko zuzendaria.
- Itxaso Fernández andrea, SAS Autosystemtechnik SA enpresako Gasteizko fabrikako Giza Baliabideen gerentea.
- Batxi Aranburu jauna, AMVISAKo gerentea.
- Zuriñe Gómez de Balugera, UPV/EHUko Vitoria-Gasteizko Ingeniaritza Eskolako zuzendaria

Ohorezko mahaian zeuden agintari horiez gain, ekitaldian parte hartu zuen, diplomak banatzen:

- Ruperta Delgado andrea, UPV/EHUko Vitoria-Gasteizko Ingeniaritza Eskolako idazkari akademikoa.

Azkenik, publikoaren artean hainbat agintari nabarmendu behar dira, hala nola:

- Montse Maritxalar andrea, UPV/EHUko Graduondokoaren eta Etengabeko Prestakuntzaren errektoreordea.
- Manoli Igartua andrea, UPV/EHUko Arabako Campuseko errektoreordea.
- Arabako Industria Adarreko Ingeniaritzako Gradudunen eta Ingeniari Tekniko Industrialen Elkargo Ofizialeko (COGITI) dekanoa eta dekanordea.
- Arabako Campuseko beste ikastegi batzuetako dekanook, zuzendariak eta koordinatzaileak.



Ekitaldi horretara 2022-2023 ikasturtean ikasketak amaitu zituzten ikasleak gonbidatu ziren, bai eta senideak, irakasleak eta ikastegiko administrazio eta zerbitzuetako langileak ere.

Hurrengo taulan, graduazio ekitaldira joan ziren ikasleen kopurua laburbiltzen da.

Titulazioa	Egresatutako ikasle kopurua		Bertaratutako ikasle kopurua	
	Gizona	Emakumea	Gizona	Emakumea
Industria Elektronikaren eta Automatikaren Ingeniaritzako Gradua	24	3	14	2
Ingeniaritza Mekanikoko Gradua	30	10	15	4
Industria Kimikaren Ingeniaritzako Gradua	5	5	1	3
Kudeaketaren eta Informazio Sistemen Informatikaren Ingeniaritzako Gradua	10	4	4	2
Automobilgintzaren Ingeniaritzako Gradua	36	2	19	1
Industria Antolakuntzaren Ingeniaritza Unibertsitate Masterra	16	8	1	0
<b>Guztira</b>	<b>121</b>	<b>32</b>	<b>54</b>	<b>12</b>

Espediente akademiko onenaren saria jaso zuten ikasleak hauek izan ziren:

Industria Elektronikaren eta Automatikaren Ingeniaritzako Gradua

Ikaslea: Mario Revuelta Tejedor

Ingeniaritza Mekanikoko Gradua

Ikaslea: Zaira Arteaga Perianes

Industria Kimikaren Ingeniaritzako Gradua

Ikaslea: Maddi Azkue Lizarazu

Kudeaketaren eta Informazio Sistemen Informatikaren Ingeniaritzako Gradua

Ikaslea: Francisco Ruiz de Alegría Iñiguez de Heredia

Automobilgintzaren Ingeniaritzako Gradua

Ikaslea: Imanol Tames Fernández

Industria Antolakuntzaren Ingeniaritza Unibertsitate Masterra

Ikaslea: Nagore Gamboa García-Villarac



## 2. Lankideen aintzatespena (2023. urtea)

Urteko azken Eskola Batzarrean, joan den abenduaren 22an, batzorde horri dagozkion ohiko gaiak jorratzeaz gain, hainbat lankideren aintzatespena egin zen; izan ere, gurekiko dedikazio eta lan ibilbide luzearen ondoren, aurten merezitako erretiroa hartu dute:

- Luis Miguel Camarero Estela
- Montse López de Arcaute Bengoechea
- Manuel Ramírez Pascual
- Marisol Pinedo Zuaza
- Jenaro Fernández Martínez

Era berean, erakundearen lanean 25 urte, mende laurdena, daramatzaten lankideen aintzatespena egin zen:

- Jose Joaquín Campayo Martín
- Jose Miguel Gil-García Leiva
- Idoia Manera Chinchetru
- M.Inmaculada Tazo Herrán

Zorionak guztioi!





# Titulazioak sustatzea

## 1. Zientzia Astea 2023

Azaroaren 9tik 12ra Zientzia Astearen XXIII. edizioa egin zen, UPV/EHUko Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Astea, eta hainbat modalitatetan ikusi, behatu eta esperimentatu ahal izan genuen: txokoetan, tailerretan, hitzaldietan eta lehiaketetan.

Vitoria-Gasteizko Ingeniaritza Eskolak "ESCAPE LAB: kode kimikoa" tailerra, "Gaueko zerua ikuskatzen" tailerra eta "Zientzia kalean" erakusketa hartu zituen.


## Jarduerak

### 1. STEAM Kultura elkarlaneko artearen bidez

Calais STEAM obra berria da, Vitoria-Gasteizko Ingeniaritza Eskolan 'Campuseko espazio irekietarako STEAM lankidetzeta-lanak' proiektuaren barruan egindakoa. Proiektuak Arabako Campuseko Errektoreordetzaren laguntza ekonomikoa du, eta UPV/EHUko ikasleek, TEKAZELEk eta IRIek har dezakete parte, bai eta Eskolarekin lotura duten eta elkarlaneko artearen bidez STEAM indartzeko interesa duten pertsonak ere.

Obra zeramikazko mural bat da (244 cm zabal eta 122 cm altu), eta zeramikazko 128 azuleju sublimatu ditu hormari atxikitako zurezko taulatuaren gainean. Laguntzaileek prentsa termikoaren bidez egin dute azulejuetara transferentzia, sublimazio bidez, eta azulejuak taulatuan jarri dituzte gai itsasgarriaz. STEAM lankidetzeta lanaren diseinua IT1685-22 ikertaldeko kideek egin dute.

Iturria: CAMPUSA





## 2. Enpresen/enpresetara bisitak

Joan den azaroaren 24an, Vitoria-Gasteizko Ingeniaritza Eskolako ingeniari mekanikoko hirugarren mailako ikasleek bisita teknikoa egin zuten LINAMAR enpresara, "Teknologia Mekanikoa" eta "Adierazpen Grafikoan Sakontzea" irakasgaien barruan.

Era berean, abenduaren 11n, AVS enpresako CEOak, Miguel Ángel Correak, AVSko 7 lan arloak aurkeztu zizkien honako gradu hauetako 4. mailako ikasleei: ingeniari mekanikoa, industria elektronikaren eta automatikaren ingeniari, industria kimikaren ingeniari, eta kudeaketaren eta informazio sistemen informatikaren ingeniari.

Miñanoko AVS enpresa liderra da Big Science sektorerako sistema konplexu eta kritikoen diseinuan eta garapenean. Hauek dira 7 arloak: Astrophysics, Accelerators, Fusion, Synchrotron, Neutron, Laser eta Space.

Eskolako ikasleek 23-24 ikasturtean hainbat GRAL egingo dituzte Accelerators eta Space arloetan.

## 3. Bizi-kalitateari, ingurumenari eta birziklatze-ohiturei buruzko jardunaldiak

Azaroaren 23an, osteguna, Arabako Hiri Hondakinen Behatokiaren "Bizi kalitatea, ingurumena eta birziklatze ohiturak" jardunaldia egin zen Vitoria-Gasteizko Ingeniaritza Eskolan. Bertan, UPV/EHUko #jasangarritasun Zuzendaritzako langileek parte hartu zuten informazio eta sentsibilizazio stand baten bidez, eta, horretarako, konplizitateak bilatu zituzten unibertsitate komunitateko pertsonen eta jardunaldian bildutakoen artean, gure eguneroko jarduerak ingurumenean izan dezakeen eragina minimizatzeko, vending makinen edo beste establezimendu batzuen plastikozko botilatxo ordez botilatxo berrerabilgarriak erabiltzea azpimarratuz, eta bertaratutakoei UPV/EHUko botilatxo berrerabilgarri bat oparitu zieten.

Gainera, "The Planet App" karbono aztarna murrizteko aplikazio mugikorrari buruzko informazioa eskaini zuten eta 150 izen emate berri lortu ziren. Halaber, gure eguneroko jarduerak ingurumenean duen eragina minimizatzeko ATTUNE proiektuari buruzko informazioa eman zuten, bai eta hainbat zentrotan klima-aldaketaren aurkako borrokan laguntzen duten beste ekintza batzuei buruzkoa ere.

## 4. Euskararen Eguna

Joan den abenduaren 1ean euskararen nazioarteko eguna ospatu genuen (abenduak 3, igandea) Vitoria-Gasteizko Ingeniaritza Eskolan. Gaztaina jateaz gozatu ahal izan genuen eta liburu zozketa bat egin genuen bertan, musikaz lagunduta.

Milesker guztiei eta badakizue Euskaraz 365 egun!!



# Beste batzuk

## 1. Ranking of the World Scientists

Jon Álvarez eta Aitor Arregi irakasleak (Ing. Kimikoa eta Ingurumenaren Ingeniaritza Saila), eta Óscar Barambones (Sistema Ingeniaritza eta Automatika Saila), Stanfordeko Unibertsitateak argitaratzen duen Ranking of the World Scientists: World's Top 2% Scientists-en azken emanaldiko argitalpen zientifikoetan aipamen gehien dituen % 2ko talde hautatuan daudelako. Hirurak azken urteko zerrendako 150en artean dauden (2022an zehar).

## 2. "López de Peñalver" saria

Aeronautikako Fabrikazio Aurreratuko Zentroko (CFAA) ikertaldetako bati "López de Peñalver" saria eman diote, Espainiako Ingeniaritzako Errege Akademiak ematen duen ingeniaritzako sari ospetsuenetako bat.

Taldea Amaia Calleja doktoreak, Izaro Ayesta doktoreak, Haizea González doktoreak, Adrián Rodríguez doktoreak eta Octavio Pereira doktoreak osatzen dute, eta BeCold® teknologia garatzen parte hartu dute. Gaur egun, teknologia hori HRE Automation-ek merkaturatzen du, eta CO2 birziklatua erabiltzen da mekanizazio prozesuetan ebaketa fluido gisa.

Lorpen horrek ikerketak eta berrikuntzak ingeniaritzan duten garrantzia nabarmentzen du, jasangarritasunean eta industriarekiko lankidetzan ikuspegi sendoarekin.

Zorionak taldeari merezitako aintzatespenagatik!

## 3. Arabako Industri Ingeniarien Elkargo Ofizialaren saria

Zaira Arteaga ikasleak GRAL onenaren AIIEO Saria irabazi du, Ana Isabel Boyano irakasleak zuzendutako "Estudio de la viabilidad del diseño de stents" izeneko ikerketa lanagatik.

Lukas Martinez ikasleak AIIEOren Ohorezko Aipamena lortu du GRAL kategorian, Amaia Calleja irakasleak zuzendutako "Diseño e implementación de un HMI modular para vehículos altamente automatizados" ikerketa lanagatik.

## 4. Eusko Legebiltzarreko Hezkuntza Batzordearen bisita

Joan den abenduaren 13an, Eusko Legebiltzarreko Hezkuntza Batzordeko kideek Vitoria-Gasteizko Ingeniaritza Eskola bisitatu zuten. Hain zuzen ere, Gorka Álvarez, Ibai Iriarte, María Jesús San José eta Zelai Nikolas Unibertsitateko ikastegira hurbildu ziren, eta Manoli Igartua Arabako Campuseko errektoreordeak, Zuriñe Gómez de Balugera Eskolako zuzendariak eta Miren Artaraz Eusko Jaurlaritzako Unibertsitate Politika eta Koordinazioko zuzendariak harrera egin zieten.

Bileran eta ondoren instalazioetara egindako bisitan, Vitoria-Gasteizko Ingeniaritza Eskolako kideak ere izan dira: Loli Encinas, José Miguel Gil-García, Amaia Mesanza, Estíbaliz Apiñaniz, Xabier Basogain eta Ruper Delgado

Iturria: CAMPUSA



eman ta zabal zazu



eman ta zabal zazu



Universidad del País Vasco    Euskal Herriko Unibertsitatea

VITORIA-GASTEIZKO INGENIARITZA ESKOLA  
ESCUELA DE INGENIERÍA DE VITORIA-GASTEIZ